

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko urriaren 13a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Irurita • Orreaga Urrozek 12 urte zituenetik jotzen du organoa herriko elizan

Aitor Merino • «Ez dut txotxongilo hutsa izan nahi»

34.214 zangozar

Horiexek dira, ez gehiago eta ez gutiago, 1574. urtetik aurre arte Zangozan jaio diren guziak: 34.214. Pedro Belaskoainek zenbatu ditu. Bera kontularia zen ogibidez, eta erretiroa hartu zenean, duela hamabost bat urte, bere jaioterriko mota guzietako datuak bildu, batu eta gordetzeari ekin zion. Hala, makina bat ikerketa egin ditu Zangozaren inguruan, betiere datu bilketa oinarri harturik.

• ASTER AZPILIKUETA



• MIKEL SAIZ

Irurita ●

Organo jole gaztea

Orreaga Urrozek 12 urte zituen Iruritako elizako organoa jotzen hasi zenean

Elizan organoa jotzen beti adineko gizon bat imajinatzen dugu. Urtez eta urtez jo izan duena. Iruritan, ordea, duela bost urtetik Orreaga Urroz neskatxa gazteak jotzen du elizako organoa igandero.



Orreaga Urrozek zazpi urte daramatza Iruritako elizan organoa jotzen, eta hemeretzi urte besterik ez ditu.

● RAKEL GOÑI



HEMERETZI URTE DITU, eta ideiak erabat nahasiak, ikasketetan urte garrantzitsua baitauka. Batxilergoko bigarren urtean dago (lehenagoko UBI), eta, horrekin batera, piano eta musikako ikasketak egiten dabil. Astelehen eta ostegunero Iruñera joaten da arratsalde osorako musika ikastera. Lanez gainezka dago. «Ez daukat ezertarako denborarik», dio.

Sei urterekin, solfeoa, eta zazpirekin pianoa jotzen hasi zen. Orreagak hamabi urte zituela, Iruritako organo jolea hil egin zen eta musikaririk gabe egon ziren bi hilabetez herrian. Garai hartan Ixidro Herguedas zen herriko apaiza, eta meza batean herriko gazteei galdetu zien ea inor prest zegoen organoa jotzeko. Orreaga Urrozek ez zuen inoiz horretan pentsatu, baina Ixidrok eskatu zuenean gurasoekin hitz egin eta bere burua eskaini zuen lanerako, hamabi urterekin.

Sunbillako apaizak hainbat partitura eman zizkion eta denak prestatu zituenean

hasi zen jotzen, Aste Saindu batez. Arraroa egin zitzaien herritarrei hain neskatxa gaztea organoa jotzen aritzea, «baina beharra bazen, eta ez zen beste inor animatu». Segituan konturatu zen pianoak eta organoak ez dutela elkarrekin zerikusirik, eta, hori dela eta, organoa jotzen ikasteko Baionako udako ikastaro ospetsuetara joan da bitan. Han, aste batez, hamasei orduz egunero, Orreagak organoaren inguruko afera anitz ikasi zuen.

Iruritako apaizari esker

Herritik ere ateratzen hasi zen. Josune Maskibar Arraiozko abeslariarekin ezkontzetan jotzen hasi zen Baztango herri askotan. Behin batez Burlatan ere jo

zuen. «Beti oso ongi tratatu naute, ez dut inolako bazterketarik edo begirada txarririk sumatu; jendearentzat ez zen arraroa organo jolea neska izatea, hain gaztea izatea baizik», erran du Orreaga Urrozek.

Ahal duenean elizara joaten da entseatzera. Gerora begira toki garrantzitsu edo koro ezagun batekin jotzea gustatuko litzaioke. Hainbat maite duen Ixidro apaizak Iruritako eliza utzi behar izan du eta, horregatik, triste xamar dago Orreaga, Ixidorri

zor baitio orain bera organo jolea izatea. «Beti ni animatzen ibili da. Eskerrak apaiz berriak ere ona dirudien, bestela ez dakit honetan jarraituko nukeen» dio beti irribarrez Orreagak.

Pianoa jotzen ere azken egunotan kontzertu garrantzitsu bat izan du Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Javier Arizmendi tenorrari lagunduz. Egun hartan Arizkuneneko sabaia lepo bete zen, eta piano jole ederra ere badela ikusi ahal izan zuen jendeak.

Mota guztietako musika gustatzen zaio Orreagari. Klasikoetan Chopin du gustukoena, erromantizisten artean onena, eta euskal musikan, «arraroa badirudi ere, Su Ta Gar gustatzen zait», esan du.

Orreaga Urrozek nahiago du geroan gehiegi ez pentsatu. Badaki bere bizia musikaren inguruan jarraituko duela, baina ikasketak hautatzeko garaia ere iritsi zaio eta ez dauka batere garbi.

→ Rakel Goñi

Massilia a Caesare capitur

AITOR TXARTERINA



Orainxe botako dudanak ez dut uste inor harririk duenik, ez inarrosiko, agertuko eta abar. Informazioaren gizartea deitzen den honetaz ari naitzaizue. XXI. mendearen atarian gairela, sekula baino egunkari, irratia, telebista, aldizkari, ordenadore konektaturik, boz, aho hots... gehiago ez du ezagutu gure ama lurrak. Alabaina, ez-informazioaren gizarterantz goazela diotsuet. Bagaude, egun.

Ez nabilkizue euskal gatazkarekin loturik den plan ZENari buruz, gerra informazioaren paradigma denaz, orokorragoa den korapiloaz baizik.

Anekdotak emanen dit sarbidea; Nafarroako Pirinioaldeko herri batean estreinako aldiz etorri zaie peoi multzo bat Afrikatik, patata-biltze lana egite-

Ez-informazioaren gizartea

ko. Ezagutu nituen gehienak Txadetik zetozen, Aljeria bidetik. Bertze bat Ertafrikatik eta hondarrekoa Nigerretik. Guziok eleaniztunak: frantsesa, arabiera, eta ingelesa bakan batzuek, sara eta bargimi Txadeko zenbait lagunek, haussa Nigerreko lagunak eta sango Ertafrikakoak. Ez dut ezagutzen hondar hizkuntzon egoera soziolinguistikoa, baina Unescoren eta enparauen txostenen kariaz oroitzen naiz *hizkuntz ttipien* patu krudelaz. Hala ere, berriro diotsuet, ez dakit herrialde hauen egoera soziolinguistikoa. Ezta ekonomikoa ere, ez eta politikoa. Ez kulturala, ez deus, kasik ez geografikoa. Atlasari eta Berlingo biltzarkide-negozianteei esker badugu paraje urruti haien berri. Urruti diot, nahiz eta Yankilandia baino gertuago egon. Zertan

datza distantzia? Irudi kopuruan. Txadex buruan gorderik dudan irudi mehe, ttipi eta kolorebako bakarra gerrari dagokio, 1975ean hasi eta 1985ean amaitu zena. Telebistaren bitartez eskuratua, kritika oinarririk gabe, umetan jaso. Harrezkero ez dut Txaden berririk izan. Afrika gehienaz ez dugun gisan. Ukaitekotan, gainera, erakuts diezazkiguten Apokalipsiko lau zaldunen ibilerak edota **gure** apaiz eta serora **onek** zenbateraino laguntzen dieten amildurik bizi diren negritoei. Bidenabar ea zenbat lagun feriatzen ahal duten *club*-erako. Izan ere, urak uher jaisten direnean aiseagoa da arrantzan jardutea.

Segi dezagun zaborra sartzen buruan. Piztu telebista.

Lizarra • Liburuak eskura

Herri Liburutegia zabaldu berri dute XVI. mendeko jauregi batean



urdairen
mintzoa

Xabier Larraburu



Ireki berria duten Jose Maria Lacarra herri liburutegiak XVI. mendeko Egiatarren jauregian du egoitza.

● KRISTINA BERASAIN

Hilaren 2an zabaldu zuten Lizarrako Herri Liburutegia. lazko otsailean ireki behar zuten, baina eraikinean zenbait akats zeudela-eta atzeratu egin zuten. Urte eta erdi geroago, lizarratarrek liburuak eskura dituzte berriz ere.

JOSE MARIA LACARRA LIBURUTEGIA XVI. mendeko Egiatarren jauregian dago; Ruiz de Alda kalean, hain zuzen ere. Bertan jaio zen, 1495ean, Miguel Egia Jaso, Lizarrako familia ezagun bateko semea eta inprimatzaile famatua izan zena. Hamar egun eskas dira liburutegia estreinatu zenetik, eta jende anitz pasatu da. Karmele Barrena liburuzainaren erranetan, jendea oso pozik etortzen da: «Jende anitz etortzen da zerbitzua erabiltzera, eta

bertze jende anitz, eraikina ikustera», esan du. «Egunero 150-200 lagun inguru etortzen dira».

Orain arte udaletxean egon da liburutegia, baina azken urte hauetan izan duen eskerra handia dela-eta tokia txiki gelditu zen. Leku berria bilatu, eta zenbait urtetan berriztatze lanak egin ostean, lazko otsailean irekitzeko asmoa zuten agintariek. Principe de Viana elkartearen eta Lizarrako Udaren artean desadostasunak sortu ziren, eta kasik bi urte

eman dituzte konponketa txiki batzuk egiteko.

Azkenik, lizarratarrek eskuragarai dituzte liburuak. Orotara 21.000 liburu gutxi gorabehera, eta 85 aldizkariren bilduma. Liburutegi berriak lau solairu ditu, eta 126 eserleku. Tartean zenbait artelan ere ikus daitezke; Florencio Alonsoen *Down* izenekoa, esaterako. Liburutegia astelehenetik ostiralera da zabalik, 09:00etatik 21:00etara.

→ Kristina Berasain

Magia

Liburu bat esku artean izatea eta bertan dauden istorioak barnertzea gauza magikoa da. Liburuaren azala eta orrialdeak ukitzen ditugu; ikusmenaren bidez, liburuko hitz beltzak lotzen ditugu; ulermenarekin bertan idatzi diren olerkiak, narrazioak eta eleberririk barnertzen ditugu; eta bertan dauden hitz sakonek sentimenduen dardara eragiten dute. Istant goxoa da. Idazlearen eta irakurlearen artean harreman berezia sortzen da orduan, eta horregatik guztiagatik liburuak eskura izan behar ditugu. Irakurtzea berez gauza berezia bada ere, are bereziago da XVI. mendeko jauregi batean egitea. Mendeetako harriek ere istorio anitz dituzte kontatzeko. Egiatarren jauregian egotea ere gauza magikoa da, gaurkotasanak antzinakotasunarekin bat egiten baitu bertan, arteak kultura babestu egiten baitu bertan, Ega ibaiaren zurrumurruek abesti xarmagarria eramaten baitu bertara, liburuak inoiz amestu ez duten txokoa aurkitu baitute bertan.

Homo homini tyrannosaurus

Pasa den astean Amnistia Internazionalen salatua zuten Euskal Herrian egiten diren oin-girgiluak munduan zehar saltzen ari direla. Girgilu hauek presoak funtsik gabeko modu krudel batez lotzeko ballatzen dira. Eskuetan eta oinetan jartzen dituzte, eta elkarrekin lotu. Presoak izorratzeko, torturatzeko besterik balio ez duten lana-besak dira, beraz. Salaketak, etikaz aparte, bere alde legala ere omen du, eta enpresa euskalduna ilegalitate batean harrapatu dutela esan dute. Izugarria iruditzen zitzaidan berri hau, hemen egiten diren armen enpresak izugarriak iruditzen zaizkidan modu berean, baina bereziki baita ere aspaldian irakurri nuen datu batengatik. Gaur liburutegian miatu eta datua aurkitu dut. Shakespeare idazlearen (hemendik aurrera S.) aipu bat da eta Hamlet liburuan honela irakur daiteke: «Hamlet: ...mutinatua bilbaotan sentitzen diren baino txarrago sentitzen nintzen...». Eta azpian, nik dudan edizio honetan bederen, itzultzailearen oharra: «The bilboes: Girgilu berezi batzuk ziren hauek, ontzietan matxinatzen ziren mutinatuei zuzenduak. Hitz honek Bilboko burdinari zor dio jatorria.» Badira beste batzuk antzekoak S.ren obretan, The Bilba esate baterako. Ezpata esan nahi du. Itzultzaileak, gainera, hitz hauek «gaztelaren altxorri» zor dizkiogula aipatzen du. Nik esanen nuke Euskal Herriko enpresek osatzen duten altxorri zor dizkiogula, eta hau bai dela benetako altxorra, diruarena, esportazio gorrotagarrietan ongi baino hobeto oinarrituta dagoena. Horregatik amorratzen nau ere S.k —Euskal Herria aipatzerakoan— «Navarre shall be the wonder of the world» esaldi famatua ateratzea. Zer mirari eta zer harridura. Zer Nafarroako Blanca eta ze letxe. Huts egin zuen profetziak, erabat, zeharo! Ez da errealitate bihurtu. Enfin, kontua da Hamlet irakurri nuenean bilboes ikustekoan «garai ilun haletaz» pentsatu nuela eta eskerrak gauzak aldatzen direla eta onerako eta abar. Ez ba. Garai haiek gaur egungo garaia dira. Hau bai dela erreala. Atzoko diruaren altxorra gaurko segitzen du izaten. Eta dugun aberastasuna zerrikerietan oinarrituta dagoela nola ukatu?



herri aldizkariak
Edure Elizondo

Irati, aspaldiko tren elektrikoa

Irati trenbide elektrikoaren inguruko artikulua bildu du **Axular** aldizkariak bere azken zenbakian, udazkenekoan: «1900. urte hasieran, Irati mendietan gero eta zur gehiago ateratzen ari ziren. Enborrak Agoitzerraino Irati ibaiaren birtartzet jaisten zituzten, eta Agoitzetik Iruñera ekartzeko trenbide bat eraikitzea pentsatu zuten. Honela, bada, 1906. urtean, Irati Elkartea sortu zen, eta ideia hori aurrera eraman ahal izateko proiektu bat egin zuen. Proiektu horretan Iruñea eta Agoitzen arteko he-

rriak ere zeharkatzen zituzten, zura eta posta eramateaz aparte, herri horietako jendea ere Iruñera ekartzeko asmoz». «Trena argindarraren bidez mugiarazten zenez, Agoitzen zentral hidroelektrikoa jarri zen. Proiektu hura berehala txiki gelditu zen Zaraitzu eta Aezkoako bailarek Irunberriraino luzatzea proposatu zutelako, euren zerbitzuak ere hobetzeko asmoz. Ez zen aldaketa bakarra izan eta, azkenik, 58 kilometroko ibilbidea hartzen zuen proiektua egin zuten».

«1911. urteko apirilaren 23an trena inauguratu eta martxan jarri zen, 8,25 pezetaren truke Iruñea eta Zangoza arteko ibilbidea bi ordutan eginez. Burlatari dagokionez, Beloso aldapatik sartu eta gaur eguneko Kale Nagusia zeharritzen zuen Atarrabiako bidea hartzeko. 1950. urtean, oso egoera ekonomiko larrian zegoen trena kudeatzen zuen enpresa eta tren zerbitzua bertan behera uztea erabaki zuten. 1955. urteko abenduaren 31n azkeneko aldiz ibili zen trenbidea».

Zangozako kontularia

Pedro Belaskoain zangozarrak hamabost bat urte daramatza bere herriko datu oro biltzen

Iragan ostiralean, ekitalde xume baina hunkigarri batean, 1574tik aurten arte Zangozan izan diren jaiotza, ezkontza eta heriotza guziren aktak biltzen dituen CD-ROMa eman zion Pedro Belaskoainek Zangozako herriari. Belaskoaini zenbakiak, datuak, gustatzen zaizkio eta Zangozarekin zerikusi duten guziak biltzen saiatzen da.

LAN HONEKIN AURELIO ERDOZAIN DEFUNTUA hasi zen 1984an. Parrokietako erregistro liburuen aurkibideak egin behar zituen bere heraldika lanen lagungarri gisa. Pedro Belaskoainek hori egiten ikusi zuen eta erran zion: «Zergatik ez dituzu datuak ordenagailuan prozesatzen?». Belaskoainek hartu zuen ardura hori. Felix Planok eta Horizonte jubilatua elkarteko beste zenbaitek Erdozain lan jarraitu zuten. Belaskoainek ordenagailuan sartzen zituen. «Behin ordenagailuan sartuta, botoi bat sakatu besterik ez duzu datu bat aurkitzeko», dio.

«Datuekin lan egitea zer den badakit», azaldu du Belaskoainek. «Ni kontularia izan nintzen. Lan eta ardura handiko postuak izan ditut. Bartzelonako ospitale handi bateko kontabilitateko burua izan nintzen». Baina 1984an jubilatua zen eta, entretenitzeko zerbait egin behar zuenez, Zangozaren gaineko datuak bildu eta ordenatzeari ekin zion. Egun 76 urte ditu, eta Bartzelonan bizi da, baina urtean hiruzpalau alditan etortzen da Zangozara ikertzerara.

Zangozako parrokietako 58 liburuetako datuak prozesatu ditu Belaskoainek. «Lehenbizi bataioekin hasi ginen, heriotzekin gero, eta ezkontzekin ondoren», erran du. «Hasieran disko gogorrik gabeko ordenagailu bat nuen, gero 16

megako ordenagailu eramangarri bat, eta orain jada behar bezalako ordenagailua dut. Zenbat aldatu den informatika!».

Datuak zangozar guziren eskura daude

Belaskoainek dienez, hagit lan gogorra izan da akta guzietako datuak prozesatzea. «Liburu zaharretan oso zaila da zer jartzen duen ongi ikustea. Parroko mordoak pasatu da Zangozatik eta bakoitzak bere idazkera zuen, tinta ezberdinak erabiltzen zituzten. Demagun parroko batek hogeitau urte ematen dituela herri batean. Hasieran idazkera ona du, ongi ulertzen zaio. Baina urteak joan ahala, iristen da momentu bat ez dagoela ezberdintzerik zer den testua eta zer izen propioa. Felix Plano jubilatua da lan gogor hori bere gain hartu duena. Nik berak emaniko datuak pasatzen nituen ordenagailura Bartzelonan».

Orain lan horren guzieren emaitza Zangozako herriari du CD-ROM batean eskuragai. Baina Belaskoainek baditu ikerketa lan gehiago, eta horiek guziak modu txukunean paratu nahi ditu Zangozari emateko; «dohainik», gaineratu du Belaskoainek. Zangozaren anitz estimatzen dituzte Belaskoainen

ziek, Zangozan lau egun baino gehiago egoten baziren, Udalean eman behar zuten izena. Auzo bakoitzeko bi bizilagun larunbatero alkatearengana joaten ziren atzeritarren berri ematera. Atzeritarrekiko errezelo hau ulergarria da Zangoza muga herria zelako».

Biografiak

«Nik datuak ikusten ditut, baina ez dakit nola bizi izan zen jendea. Orain gustatuko litzaidake zenbait jubilaturen testigantza jasotzea jakiteko, adibidez, nola garatu diren lanbideak azken 70 urteetan. Edo hezkuntza, edo komertzioa. Euren bizitza entzunez jakinen du gu nolakoa zen euren ingurua».

Kanoiak

«Behin, Zangozako baratze batean, arrautza itxurako harri handi batzuk ikusi nituen. Bartzelonako Unibertsitatara eramane nituen

lanak, hurbileko kontuen berri ematen baitute.

Konparazio baterako, Belaskoainek Zangozako abizenak sailkatu ditu. Hala, Elizalde batek 1700. urtean Zangozan zenbat Elizalde zeuden jakin dezake, eta ea bere abuhilkoen artean ote zegoen. Belaskoainek aguztiazko guziren berri du, haur biki eta hirukiak, izurriteen berri, modu bortitzean hilkizangozaren berri, 2.200 leku izenen berri...

Era askotariko lanak

Bere lanen artean badu bat 1787ko dearen ingurukoa. «Eslabako dokumentu batzok urda euritsua izan zela, San Martinera indik jende askok ez zuela eultzitzen bukasplikatu du. «Abuztuko ura elur bilakatu zailaren hasieran. Baina gero temperatura alata izan zen, eta euria etorri zen. Esako dokutu baten arabera, Aragoitik etorri hiru ekar elurra urtu zuten eta izugarriko ur-bolada izan zen. Zangozan ura iparretik sartu zen. San Maria, San Babil eta Jaca atarietatik. San Babil sartu zen urak Galeriarako bidea hartu zuten izugarriko ubidea sortu eta hiruzpalau multzo



Pedro Belaskoain disko gogorrik gabeko ordenagailu batekin hasi zen datuak biltzen. «Zenbat aldatu den informatika!», dio. Orain behar bezalako ordenagailua du, hamabost bat urtetan bildu duen datu mordoari eusteko modukoa.

MIKEL SAIZ



→ Asier Azpilikueta

puntuz-puntu

Belaskoainen ikerketak

Datu bilketan oinarriturik, Pedro Belaskoainek 30en bat ikerketa lan eginak ditu Zangozaren inguruan. Hona hemen horietako batzuk:

1607ko apeamendua

«Ikusgarria da. Lizarra, Tuter eta Erriberriko merialdeak kexatu ziren Iruñekoek eta Zangozakoek zutena baino gutiago aitortzen omen zutelako. Zangozar guziek, banan-banan, udaltxeko aretoan, ehun bizilagunen aitzinean aitortu behar izan zuten euren etxaldean tamaina, kalitatea, balioa... Hor ez zegoen gezurra erraterik. Eta horrekin guziarekin oso zerrenda zehatzak egin zituzten datuak atalka ordenatuz».

1611-1628ko udal bandoak

«200dik gora dira, edozer gauzari buruzkoak: nekazaritza lanak, prezioak, atzeritarrek... Hau oso bitxia da. Kanpotik etortzen ziren gu-

zertzerak. Biologiakoek hasin pentsatu zuten dinosaurio arrautzak zirela baina harri soila zirela ikusi zuten. Geologoek erran zidaten Zangozaldean ugaria dharri mota batekoak zirela. Azkenik, arkeologoek militarismoan aditua zen bati pasatzen, eta honen berehala identifikatu zituztako balak ziren. Eta balak baldin bazen, kanoiak nonbaiten egon behar zuten. Kien Ganberan izan nuen 1362an kanoiak zituzten soldaten berri».

Floridablanca ministroen errolda

«1786an egin zen, uholdea balehen. Perfektoa da. Hona etsenplua horretarako: Casa nº 83. Dos habitaciones, la primera Manuel Soto, maestro cubero de hombres buenos, de 29 años, casado con Ana Perez, de 28. Tienen dos hijas, Josefa de Ignacia de 1,

y una criada, Josefa Aguerri, de 16. En la segunda, Fermín Moreno, maestro botero de hombres buenos, viudo de 45 años, tiene dos hijos, Antonio de 11 años y Javiera de 10. Honi esker nik badakit non bizi ziren zangozar guziak. Uholdea izan zenean, parrokoek karriken arabera zerrendatu zituzten hildakoak. Nik hildako bakoitza bere etxean sartu nuen. Etxebizitza bakoitzean hil zirenak eta bizi iraun zutenak identifikatu ditut. Lan ederra izan da».

Seme-alaba kopurua

«Hau oso interesgarria da eta jendea aztoratu du. Denok uste dugu familiek lehen seme-alaba asko izaten zituztela. Ez ba. Aztertu datuen arabera, gurasoen %40k haur bakarra zuten, %20k bi, eta %12k hiru. Familia bakoitzean normalean lau kide zeuden, gurasoak eta seme-alabak. Eta aitaxi edo amatxia baze- goen, kendu haur bat».



Sangüesa

Nacimientos

Bodas

Difuntos

1574 - 2000

Por Pedro Belaskoain Cembrain

Zangozako herriak anitz estimatzen ditu Belaskoainen lanak, hurbileko kontuen berri ematen baitute. Belaskoainek bere lan guziak modu txukunean paratu nahi ditu, Zangozari «dohainik» emateko.

MIKEL SAIZ

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Agustin Kardaberaz, donetu bidean ote?

Agustin Kardaberaz euskal idazle eta josulagun hernaniarra Italian santurrinean hil zeneko 230. urteurrena egunotan betetzen da; urte guzti hauetan aunitz izan dira Kardaberaz santutasunean sinismen fermua izan dutenak, donetzearen unerako beharreko neurriak hartuz; guztiarekin ere, kanonizazioaren ordua ez da iritsi, oraino bederen.



Santuak modan bide dira Shartzara, gorantza legokeen burtsako balio berria bailitzan, eta Erromako eliza katoliko apostolikoaren nagusia jo eta su ari da azken boladan santu berriak izendatzen, orain artekoak gutxi bailituan. Ez gara gu inor Joan Paulo II.ak doneturiko guztiak ongi ala gaizki aukeraturik dauden esateko, horretan ez baikara iaioak, eta gurea ez den beste etxeko kontuak baitira horiek. Alta, eta honakoxea baldin bada geroantzean nagusituko den joera, hemendik gutxira santutuen zerrendetan euskal literaturaren izar distirantak diren zenbait izen aisa erants litezke, hil orenean santurrina baitzerien, eta huraxe baliagarria baldin bada beren euskal lanak inoiz baino ozenago plazara ateratzeko, geure poza ez dugu inolaz ere ezkatutuko. Santugai diren euskal idazle horietako bat, dudarik gabe, Agustin Kardaberaz hernaniarra dugu.

Euskal literaturan arras ezaguna gertatzen den Agustin Kardaberaz Elgorriaga 1770eko urriaren 18an zendu zen Bolonia aldeko Castel San Giovanni herrixkan, orduko agiriaren arabera *obiit cum fama sanctitatis*. Italiara 1767ko errege dekretuak eraman zuen. Josulagundiaren kanporaketei hasiera eman ziena Pombalgo markisa izan zen, 1759ko irailean Portugalgo josulagun guztiak erbestertzea agindu zuean. Frantziako Luis XIV.ak ere, oso gogokoa ez zuen neurria izan arren, ber

gauza xedatu zuen 1764an — beste motatako arrazoiak tartean bazeudela, hain zuzen ere, erregearen maitalea zen Pompadourko markisa zeharo haserre baitzegoen erregearen aitorlea zen Perusseau josulagunak jaunartzea ukatzen ziolako—. Espainian lagundia ezabatzen zuen errege dekretua 1767ko otsailaren 27an sinatu zuen Karlos III.ak El Pardon. Urte berean ere Napolin eta Parman onartu zen erabaki bera Karlos III.ak bere semeari hala eskatu ostean.

Hil ostean Bolonian bertan lurperatu zuten Kardaberaz aita, San Giovanniko beste apaizen hobia. Alabaina, Jose Kardaberaz ilobak horixe gutxi zela iritzirik, eliz berean zegoen Xabierko San Frantziskoren omenezko aldarearen ondo-ondoan berri eraikitako hilobian sartu zituen osabaren gorpuzkinak 1794an. Kardaberaz jaio zeneko 200. mendeurrenean, 1903an beraz, Italian pake ederrean zeutzan josulagunaren hondarrak ekartzeko tramiteak hasi ziren egiten Hernaniko udala eta Loiolako etxea, harik eta 1908an beharreko baimen guztiak erdietsirik, santugaiaren hondakinak Loiolako santutegira maiatzaren 2an

eraman zituzten arte; Hernaniko hiriak, halaz guztiz, etorkizun batean hiriko semea santutuko zutelako seguramen osoan, eskuineko besoa beretzat hartu zuen, egun, oraingoz bederen, balio historikoa baizik ez duen besoa izanik.

Ordenakideak Kardaberaz santutasunean zeharo sinetsirik, bere biografia aspaldian dute idatzirik, baita argitaratuta ere. Kardaberazekin berarekin Italiako erbestearen zegoen Julian Fonseca josulagunak idatzi zuen lehenbiziko aldiz, Frantzisko Xabier Idiakenez probintzia buruak horrela eskatuta, *Compendio de la vida del P. Agustin Cardaberaz*, alabaina berandu arte ez zen karrikaratu, Madrilgo Tejado etxean 1862an inprimatu baitzen. Lan honetatik euskarazko aldaera zertxobait aldatuxea atera zen zenbait urte beranduxeago, *Aita Agustin Cardaberaz jaincoaren serbitzari andiaren berri laburrak apaiz batek eusqueraz jarriac*, Durangoko Florentino Elosuaren etxean 1908an egina. Ez dakigu, ordea, zein apaizek jarri zuen euskaraz. Bigarren biografia Gaspar Gonzalez Pintado josulagunak tajutu zuen. *Ardores de un serafin: el p. Agustin de Cardaberaz*

izenburu bereziarenpean dagoen bi liburukitako idazki zabala dugu. Madrilen 1924an agertu zena; honen bigarren aldaera *Vida del padre Agustin de Cardaberaz, apóstol del Corazón de Jesús* izan zen, 650 orrialdeko liburutzarra, Donostian 1947an atera zena.



etorri ahalean

Patziku Perurena

Integrismo ergelaz (I)

AURREKO TXANDAN, Orixeren «desprezioak» entenitzen salatu gabe eskandalotzat hartu dituen herri baten mixeria aipatzen nuen. Libertino modernoan «integrismoa», puska haundiz estuagoa dela, alegia. Konparazio bateko, «despreziadore» sano baten karta:

HIPERKORREKZIO PETARDOA

«Ene maite bihotzekoak, arras uda ahaztezina izan da pairatu berri dugun hau. Aldatu, ganbiatu, xanjatu, aiereratu eta trasfiguratu zaizkit nire printzipio fundamentalak oro.

Uda aurrean, urrunago joan gabe, uste nuen munduko parte hau, herri hau, ortodoxoek dioten bezala, hiperkorrekzio petardo eta pestoso baten menpean zegoela ezinbertzez.

Uste nuen, eta ez dut seinalatu nahi. Euskitze presentariak, adibidez, aski ongi paradigmatzen zuela hiperkorrekzio txutxen okaztagarriaren mirakulua: Pérez izatea ezin onartetik euskal atso guziek nahiko luketen suhia izatera pasa den espezimen eredugarria, diogen guziari soltura faltsu, erreperente eta beratza kutsatzen diona.

Ai eta milatan ai. Ene ekibokazioa espantagarria zen eta hemendik beretik barkamena eskatzen diet herri honi, Pérez deskastatuari, euskal atsoei eta suhi txintxo guziei, umilki, belauniko eta etzanda, pasa, zapaldu eta ttu egin nire gainean, arrontik barkagaitza den nire ofuskazio gaizto horregatik.

Zertaz, ene maite bihotzekoak, egia agertu eta agertu eta argi egin baitzait gure euskal herrietako besta gozagarrietan. Dena baita, bota dezadan behingoz, prejuizioz beterik neukan iduri makurraren kontrario absolutoa. Korrekzio, txintxotasuna eta formalidadea zeruko benedikazioak dira.

Leitzan ukan nuen Egiaren lehen abisua. Banindoa, bada, harat eta honat, neure buruarekin zer egin ez nekiela, oroipen goxo eta ergeletan galdua. Eta hara non dakusadan Baleztenaren bandera. Koño, ze polita. Eta hara non dauden bertsolariak ayuntamientoko arkupean, talata eta larala, hagitz gauza graziosoak kantari, ze ongi. Orduan, gajjartzailleak —arront neska formula, moñoña eta txintxo bera— gonbitea egin zion Iturriagari —arront mutiko korrekto, ortodoxo eta dekoratiboa—... baina, zer diot gonbitea? Agindu egin zion esan beharrak esateko banderen manamenduari buruz.

Horixe zen, ene irakurle kurioso, fenomeno interpretatzeko nire manera makurra. Horregatik sekula behar adinako zigorrik izan ez baitut. Bertan eta nirehala konprenitu nuen, ordea, nere hutsa. Justuki kontrario baitzen. Zer hiperkorrekzio eta zer kaka idorra! Antolakuntza falta handia, horixe! Baleztenaren bandera, ikurriña bere globoekin, karlista zapelgorridun bat ikurriñari tiroka balkoitik, Iturriaga bere patillegaz, gajjartzaille txintxo, talata eta malata guziak programan beharko lirake, horixe. Programa hertsia eta hiperkorrekto batean, bere ordutegi eta zeregin zehatz guziekin. Nolatan sortu zen, ene feligres leitzar maiteok, hor nonbait egiten duten hiru behien tributoaren besta ponposa? Formaldu, antolatu eta programan paratu! Ez duzue, bada, Leitze Madrilen pare hortan, hortako baita gehiagoko ere, poetarik eta letraturik aski eta abasto? Ez da pastoralala izan behar, aski duzue maskarada. Benga, heldu den urterako, libretoa enkargatu herriko listoren bati, programan paratu eta ikusiko dituzue benefizio ikaragarriak... (Honek segituko du, jakina).

Ziria

• Motxorrosolo •

Miarritze


BATEK BAINO GEHIAGOK ESTREINAKOZ ZAPALDUKO DITU kostaldeko hiriko karrikak. Mugarik ez izateak ezarriko mugak ezagutu ondoren, egunekoari lotzean urruntasuna nozituko du. Besterik ez bada, norberaren herritik Miarritzeraino den tartea ikasiko dute.

Aitor Merino

AKTOREA

«Ez dut txotxongilo hutsa izan nahi»

Iruñean izan da asteon Aitor Merino aktorea, Ana Diez zinemagile tuterarrarekin ari baita lanean, *Algunas chicas* (cruzan las piernas cuando hablan) pelikula filmatzen. Duela hamabi urte joan zen Merino Iruñetik Madrilera, zineman lan egitera. Balantzea «ona» dela erran digu aktoreak.



● ARGAZKIAK: CRISTINA BERIAIN

AZKEN ALDIAN AITOR MERINO zinemetako pantailan ikusteko aukera ugari izan dugu, lan eta lan ari baita aktorea. Zineman ez ezik, antzerkian ere aritzen da. Bere lanaz mintzatu da gurekin egindako solasaldian.

■ **Etxera ekarri zaitu berriro Ana Diezen filmak; pozik?**

Bai, oso pozik. Joan den urtean *Lo mejor de cada casa* egin nuen, eta orain berriro Anarekin hemen egotea oso pozgarria da. Madrilen eta beste leku batzuetan lan egitera ohituta nago, beti kanpoan, eta, beraz, gustura etorri naiz berriro gurasoen etxera.

■ **Aktore talde gaztea da *Algunas chicas* pelikulakoa; gero eta aktore gazte gehiago ikusten da pantailan, zer deritzozu?**

Nik uste dut gauza ona dela; konpetentzia, kasu horretan, ona da. Espainian egiten den zinemak behar zuen autokritika, eta beti aktore berak ari badira lanean azkenean lelotu egiten dira. Azken urteotan jende berri asko abiatu gara, eta uste dut seriotasun handiarekin egiten diogula aurre lanari, eta hori ona da. Noski, rol bakar bat egiteko aktore asko dago, baina horrelakoa da lan hau.

■ **Aktore askok telebistatik zinemara salto egin dute. Zu ez zaitugu asko ikusi telebistan, ez duzu gustuko?**

Hiru urtez Canal Plusen egon nintzen, haurrentzako programa bat egiten, eta oso lan duina izan zela uste dut. Horretaz gain, telebistan lan egiteko egin dizkidaten proposamenak ez ditut onartu. Aurten, Espainiako Telebistak saio batean lan egiteko proposamena egin zidan, baina oso txarra zen, eta ez nuen onartu.

Nahiago dut zinema edo antzerkia egin. Caracalva izeneko taldea daukat Madrilan

■ **Telebistak aktorearen irudia erretzen duela uste duzu?**

Bai, hala da. Nik uste dut aktoreak aura magiko moduko bat izan behar duela, eta horri eutsi behar dio sinesgarritasuna edukitzeko. Telebistak ematen duen gehiegizko hurbiltasuna ez da ona aktorearentzat.

■ **Hamabi urte daramazu Madrilan lanean. Zer-nolako balantzea egingen zenuke?**

Oso ona. Joan nintzenez oso gaztea nintzen, 16 urte



besterik ez nituen, eta Arte Dramatikoa ikasten hasi nintzen, gurasoen laguntzarekin. Hasieran gaizki pasatu nuen, ez nuelako dirurik, ez eta lanik ere, baina *Historias del Kronen* egin nuenetik gauzak konponetzen hasi ziren, eta, pixkanaka lan gehiago egiten hasi nintzen. Film horrek erabat markatu du nire ibilbidea. Orain segurtasun handiagoz egiten dut lan, eta aktore naizela sinesten hasi naiz. Aktore gisa, munduan gertatzen diren gauzei buruz ikuspuntu bat izaten saiatzen naiz, ez dut txotxongilo hutsa izan nahi, eta hori urteen poderioz lortzen da.

«Zinemak funtzio asko duela uste dut, eta funtsean negozio bat dela, baina merkatu horretan beharrezkoa da ere gertatzen dena kontatzen duen jendea egotea»

■ **Zer iritzi duzu gaur egungo zinemari buruz?**

Espainian egiten den zinema, nire ustez, ez da oso ona. Jende berria dago, eta genero berriak lantzen dira, eta hori ona da, baina arrakasta gehien duten pelikulak ez datoz bat nik zinema onari buruz dudan ideiarekin. Hizpide falta dagoela uste dut. Euskal Herriari dagokionez, jakinmin handia dagoela uste dut, eta jende interesgarria. Baina ez dakit hemengo zinemaz hitz egin daitekeen. Ez dakit zer egin dezakegun gure istorioak edukitzeko.

■ **Zer da zinema ona, zure ustez; zeintzuk dira gustuko dituzun istorioak?**

Istorio normalak maite ditut, jendea eta gertatzen ari diren gauzei buruz ari direnak, Espainian, adibidez, ez da pelikula politikorik egiten, eta hor gaitak badaudela uste dut. Jendeak ez du arriskatu nahi. Ken Loachek egiten duen lana oso interesgarria iruditzen zait, eta, hemen, Montxo Armendarizek jarraitzen du antzeko bide bat. Frantzian ere egiten dira pelikula kritikoak. Zinemak funtzio asko duela uste dut, eta funtsean negozio bat dela, baina merkatu horretan beharrezkoa da gertatzen dena kontatzen duen jendea ere egotea.

→ Edurne Elizondo

..... **soslaia**

Donostian jaioa da Aitor Merino, baina zazpi urterekin Iruñera iritsi zen, eta bertan bizi izan zen hamasei urte bete zituen arte. Orduan, Nafarroako hiriburua utzi eta Madrilera abiatu zen Arte Dramatikoa ikastera. Orduetik, gora egin du bere karrerak.

Lan eta lan ari da Aitor Merino azken aldian. Iaz bost pelikula egin zituen, eta, haietako batean, *A galope tendido* filmean, protagonista izan zen, aurrenekoz. Orain, Ana Diezen pelikulan ez ezik, Alvaro Garcíaren *Canicula*-n ere ari da lanean.



Lezaun - Urbasa

Hostal hau alokatu nahi dugu.

✓ Jantokia, sukaldea, taberna, logelak...

✓ Berehala lanean hasteko behar den guztia du.

Interesatuek dei dezatela telefono honetara:

655 700 132



Nafar Kronika

Martxelo Sotes

Nafar detektagailua

Hiriburu honetako bi egunkarik ezaugarri komun xeblebra dute. Xeblebra, berezia, gainontzeko argitalpenek ez dutena: nafar superdetektagailua, munduko edozein lurraldetan nafar aztarnak bilatu eta aurkitzen dituena, alegia.

Mundua zabala da, sei bat mila milioi biztanle omen ditu. Hala eta guztiz ere, *Non dago Wally?* erraldoia balitz bezala, egunkari horietako nafar detektagailuak berehala topatzen ditu nafarrak edo haiek utzitako aztarnak, planetaren izkinarik ezkutuenean.

Egunkari hauen edozein orrialdetan aurki dezakegu honen guztiaren eredu direnak: Filipina uharteetan edota Ruandan dagoen misioilari nafarraren argazkia. Edo bestela nafar abizena duen Hollywoodeko aktorearen inguruko erreportaia. Edota berraitona nafarra zuen astronautari eginiko elkarrizketa.

Baina tramankuluak badu bere funtsa Nafarroatik bertatik ere. Nafarroaren garrantzi historiko mundiala ikertzen du, hemendik bertatik gainontzekoekin konparazioa eginez. Ezetz? Ikusi zelako lerburua ikusi ahal izan genuen joan zen astean: «Nafarroa pertsona bakoitzeko Sydneyko domina gehien jaso duen bigarren erkidegoa da». To, hasteko, hau ona edo txarra da? Berez zer esan nahi du honek, kirolari nafar askotok domina eskuratu zutela, edo biztanle gutxi duela Nafarroak? Noski, egunkari horiek ezin dute honelako egia tamalgarria aireratu eta aurreko partea nabarmentzen dute. Bota ditzagun beraz suziriak hau ospatzeko, finean Estatuko erkidego bakarrak aurrea hartzen baitigu domina bilduman.

Kontua da nafarrok geure txilborrera begiratzeko ohitura itsusi hori suspertu baino ez dugula egiten egunkari nafar detektagailudunak irakurtzen. Edozein gertakariaren aurrean zer da garrantzizkoena?, gertakaria bera edo haren efektu kolateralen artean nafar izpirik aurkitzea?

Egon badaude pisuzko arrazoiak EGUNKARIA irakurtzeko. Azken hau beste bat izan daiteke...

gure aukerak

MUSIKA

- **Uskartzeko:** Niko Etxart kantaria ariko da gaur gaueko hamabietatik aurrera Atapea tabernan.
- **Erronkari:** Erramun Martikorena eta Inaki Maritxalar kantariak kontzertua eskainiko dute bihar, 19:30ean, kiroldegian.
- **Burlata:** Carne Cruda taldeak kontzertua eskainiko du asteartean Black Rose tabernan, 20:30ean.

ANTZERKIA

- **Urzainki:** Igandean, Pello Añorgak 4 eta 9 urte bitartekoentzako ipuinak kontatuko ditu udaletxean, 17:30etik aurrera.
- **Mutiloagoiti:** Igandean, Gorakada taldeak *Txano gorritxo* haurrentzako lana taularatu du, 18:00etan, Kultur Etxeko auditoriumean.
- **Tafalla:** Asteazkenean, Txamuskina taldeak *Kaioa eta katua* haurrentzako antzez-lana eskainiko du kultur etxean, 18:00etan.

BERTSOLARITZA

- **Bera:** Bihar, Bortzrietako Bertso Eskolaren 10. urteurrenaren kariatara, Bidasoako bertso-paper lehiaketako sariak banatuko dituzte, eta ondoren, 18:00etan, Iraulio Pantalone Banda taldeak (Jose Luis Urdangarin, Eñaut Agirre eta Xabier Legarreta bertsolariak eta sei musikari) *Ai Martin* ikuskizuna eskainiko du kultur etxean.
- **Burgi:** Bihar, 22:30ean, bertso-afaria egiten dute Petrotx tabernan, Andoni Egaña eta Estitxu Arozenarekin. Txartelak ohiko lekuetan dira salgai.

DANTZA

- **Otsagi:** Bihar, 22:30ean, Dugu-

na taldeak gaueko dantza ikuskizuna eskainiko du pilotalekuan.

HITZALDIA

- **Iruñea:** Bertsoaroa 2000 ekitaldiaren baitan, ostegunean Pablo Jose Aristorenak *Nafarroako bertsoaritzaren historia* izanen du mintzagai. Kike Diez de Ultzurrunek, berriz, *Nafarroako bertsoaritzaren iragana eta geroa* izeneko hitzaldia emanen du. Biak 20:00etan izanen dira, Alde Zaharreko Erraldoien Txokoan.

LEHIAKETAK

- **Iruñea:** Hilaren 31n akitzen da Egile Berrientzako XV. Literatur Lehiaketarako lanak aurkezteko epea. Olerkia, Narrazio Laburra, Bertso-paperak zein Komikia modalitateetan hiru sari banatuko dira, 200.000, 120.000 eta 60.000 pezetaok.


ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Cristina Perezen margolanak ikus daitezke Gazte-riaren Etxean; gaur

18:00etatik 20:30era, eta bihar 12:00etatik 14:00etara.

- **Barañain:** Europako paperezko antzokien erakusketa asteazkenean arte izanen da zabalik Kultur Etxean, lanegunetan 18:30etik 20:30era.
- **Etxarri-Aranatz:** *Eguzki bidezko asmakariak* erakusketa osteguna arte ikus daiteke Kultur Etxean, bulego eta zinema emanaldien orduetan.
- **Zangoza:** Jose Luis Mongeren margolanak daude ikusgai Kultur Etxean, hilaren 25a arte.

• MIKEL SAIZ



Apostua

Nahita egin dutela dirudi. Honela erranen zion eraikitzaileak arkitektoari: «Baietz etxea teilatutik hasi!». Eta arkitektoak, noski: «Ezetz!». Eta etxeko jabea zur eta lur, zer erran ez zekiela: «Aizue, baina...». Alferrik, beste biek aterata zituzten dagoeneko mila duroko billeteak. Irudiak dio eraikitzaileak irabazi zuela. Antza, orain, etxeak teilatutik has daitezke (tira, azpiko zutabeek ere laguntzen dute). Orkoienarako bidean dagoen etxeko jabeak irabaziko du apustua eraikinak luzaroan irauten badu. Eta hala ez bada, eskubide osoa du eraikitzaileari eta arkitektoari bi mila duro eskatzeko; horrelako kontuekin ezin baita horren arin ibili, gauzak behar bezala egin behar dira, eta ez etxea teilatutik hasi...